



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko martxoaren 17a

27. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-26/MOC-00031. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitate osoan ezar dezan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-26/MOC-00039. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-26/MOC-00040. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ganorazko negoziazio-prozesu bat abiaraz dezan, ordezkari sindikalen, enpresen ordezkarien eta ikastetxeen parte-hartze aktiboarekin, eta lehenbailehen heldu diezaien Lanbide Heziketako Irakasleen Batzarrak jendaurrean egindako 12 eskaerei. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-26/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbideari loturiko lurralde ez-autonomia dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik izan inoiz; hortaz, exijitzen dugu amai daitezela hark eginiko okupazio ilegala eta Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidearen egiazko erabilerari hark jarritako oztopoak. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-26/MOC-00044. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ingurune digitalean ere garatu dezan hezkidetza. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-26/MOC-00045. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari parekideari eta presentzia orekatuari buruzko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00162. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira eremu publikoetan eta erabilera publikoko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- 11-26/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-26/MOC-00031. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita Nafarroako Foru Komunitate osoan ezar dezan ontzien gordai-  
lu, itzulketa eta itzulerako sistema**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Foru Komunitate osoan ezar dezan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzeak aukera emanen die Nafarroako toki-entitateei honako hauek agindutako bilketa bereiziarren helburuak lortzeko: Nafarroako Hondakinen Plana, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea eta aplikatzekoa zaien Europako araudia; bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko abenduaren 19ko 2025/40 (EB) Erregelamendua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 2019/1020 (EB) Erregelamendua eta 2019/904 (EB) Zuzentaraua eta 94/62/EE Zuzentaraua indargabetzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzea onuragarria izanen dela ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboentzat, aukera emanen baitie ekoizlearen erantzukizun zabaldua betetzeko eta inbertsio seguruak eta kontrolatuak eskala txikiagoan egiteko, arriskua mugatuz eta ondoren Estatuko gainerako lekuetan errepikatzeko aukera emanez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du beharrezkoak diren erabakiak har ditzan eta ekimenak abiaraz ditzan, bere eskumenei dagokienez, Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzeko, eta, behar izanez gero, Nafarroako Hondakinen Plana alda dezan ontzien hondakinak biltzeko sistema hori ezartzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du mozio honen ebazpenak hondakinen bilketan eskumena duten Nafarroako toki-entitateei eta Nafarroako Hondakinen Partzuergoari helaraztea, erakunde honek Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzearen alde duen borondatea kontuan har dezaten”.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00039. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako  
Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz  
bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez premiatzen baita berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala har ditzan hartu beharreko neurriak Nafarroako Foruzaingoa soilik arduratu dadin El Sadar futbol-zelaiaren segurtasunaz bertan egiten diren partida eta lehiaketa guztietan”.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00040. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua  
premiatzen baita ganorazko negoziazio-prozesu bat abiaraz dezan,  
ordezkari sindikalen, enpresen ordezkarien eta ikastetxeen parte-hartze  
aktiboarekin, eta lehenbailehen heldu diezaien Lanbide Heziketako Ira-  
kasleen Batzarrak jendaurrean egindako 12 eskaerei**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ganorazko negoziazio-prozesu bat abiaraz dezan, ordezkari sindikalen, enpresen ordezkarien eta ikastetxeen parte-hartze aktiboarekin, eta lehenbailehen heldu diezaien Lanbide Heziketako Irakasleen Batzarrak jendaurrean egindako 12 eskaerei. Erabakia eragin zuen mozioa Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu zuen, eta 2026ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ganorazko negoziazio-prozesu bat abiaraz dezan, ordezkari sindikalen, enpresen ordezkarien eta ikastetxeen parte-hartze aktiboarekin, zeinean definituko baitira lege berriaren ezarpena eragiten ari den arazoak, zehaztuko baita zer baliabide behar diren eta hartuko baitira hartu beharreko erabakiak legea behar bezala garatzeko.

2. Lehenbailehen heldu diezaien Lanbide Heziketako Irakasleen Batzarrak jendaurrean egindako 12 eskaerei. Erreibindikazio horiek otsailaren 28an egindako manifestazioaren xede izan ziren, eta ikastetxe publikoetako irakasleen % 84k berretsi ditu”.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbideari loturiko lurralde ez-autonomia dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik izan inoiz; hortaz, exijitzen dugu amai daitezela hark eginiko okupazio ilegala eta Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidearen egiazko erabilerari hark jarritako oztopoak**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbideari loturiko lurralde ez-autonomia dela, zeinaren gainean Marokoko Erresumak ez baitu inolako subiranotasunik izan inoiz; hortaz, exijitzen dugu amai daitezela hark eginiko okupazio ilegala eta Saharako

herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidearen egiazko erabilerari hark jarritako oztopoak. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak babestu eta bere egiten du «Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean» taldearteko XXIX. Konferentziak onetsitako adierazpena.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00044. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ingurune digitalean ere garatu dezan hezkidetza**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ingurune digitalean ere garatu dezan hezkidetza. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak gobernu zentrala premiatzen du plataformei eta algoritmoei buruzko araubidean aurrera egin dezan, zertarako eta korporazio teknologikoek beren gain har dezaten zabaltzen dituzten edukien eta eduki horiek gure bizitzetan duten eraginaren gaineko erantzukizuna.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gainerako erakundeekin lankidetzan, irakasleei eta familiei zuzendutako prestakuntza-ekintza gehiago egin dezan, haurrak eta nerabeak ingurune digitaleko eduki sexualizatu eta bortitzetatik babesteko behar diren tresnak eduki ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du begirada feminista txerta dezan zibersegurtasunaren, adimen artifizialaren, datuen eta eskubide digitalen inguruan egiten diren eztabaida guztietan. Begirada feminista horrek ikuspegi intersekzionala gehituko du, kontuan hartuta eremu digitalean identitate eta esperientzia desberdinak nola gurutzatzen diren eta indarkeria digitalek zer eragin duten.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio-kanpainak egin ditzan neska-mutikoak kontzientziatzeko eta babesteko sare sozialetan mezu matxisten, sexu-jazarpenaren, ezkutuko prostituzioaren eta genero-indarkeriaren aurrean.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan eremu digitalean ere zabaltzeko eta sakontzeko Skolae hezkidetza-programa.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikeria eta gaurkotu ditzan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakundearen arteko Akordioa, bai eta Nafarroan indarrean dauden protokoloak ere, bereziki sexu-indarkeria digitalak jasotzen dituztela eta arreata integrala eskaintzen dutela bermatzeko. (Hezkuntza, osasun, epai eta polizia arloko protokoloak, bai eta tokiko protokoloak, barne).

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du genero-ikuspegia duen prestakuntza espezializatua eta diziplina anitzekoa berma diezaien profesionalei indarkeria digitalen kasuak identifikatzeari eta lantzeari buruz. (Hezkuntza, osasuna, gizarte-lana, psikologia, sistema judiciala, segurtasuna eta funtsezko eragileak)".

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-26/MOC-00045. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari parekideari eta presentzia orekatuari buruzko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari parekideari eta presentzia orekatuari buruzko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari pare-

kideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondotik azterketa bat egin dezan berdintasun-agenteek Nafarroako administrazioetan dituzten eginkizunei eta sartzeko baldintzei buruz.

3. Azterketa hori gehienez ere sei hilabeteko epean egingen da".

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00162. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira eremu publikoetan eta erabilera publikoko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

2026ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuk Osoko Bilkurak ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira eremu publikoetan eta erabilera publikoko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan. Mozioa 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-26/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

2026ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuk Osoko Bilkurak ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu pertsonaren duintasunarekiko, askatasun indibidualarekiko, nortasunaren garapen askearekiko eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunarekiko konpromiso zalantzarik gabea, gure ordena konstituzionalaren ezinbesteko oinarriak baitira. Mozioa 2026ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



